

Euskarazko unibertsitate ikasliburuak Interneten eskuragarri jarri ditu UEUK

Buruxkak Liburutegi Digitala sortu dute unibertsitateko euskal ikasle eta ikertzaileentzat

Mikel Carramiñana. Bilbo

Interneten askotariko informazioak eskura daitezke gaur egun, eragozpen nabarmena badago ere: hizkuntzarena. Euskarazko webguneak areagotu diren arren, goi mailako ikasketetarako eta ikerketarako baliabideak urriak dira, oraindik ere, amaraun euskaldunean. Udako Euskal Unibertsitateak, UEUK, ekarpen handia egin dio euskarazko unibertsitateko irakaskuntzarako testugintzari eta, hemendik aurrera, sortu berri duten Buruxka Liburutegi Digitalari esker, erakundeak argitaratutako dokumentu, liburu eta artikulugari kontsulta daitezke Interneten.

Lore Erriondo UEUko zuzendariak eta Xabier Isasi argitalpen arduradunak aurkeztu zuten atzo, Bilbon, Buruxka egitasmoa. Isasik esan zuenez, liburutegi digitalaren helburu nagusia unibertsitate mailako materiala ikasle euskaldunen eskura jartzea da, ikertzeko, ikasteko zein kontsultatzeko tresna bihur dadin. Hiru dira proiektuaren funtsezko ezaugarriak: Erabilgarritasuna; publikoa eta doakoa izatea; eskuragarritasuna, formatu digitalean zabaltzeko materialak dira, erabiltzaileak erraz eta eroso eskura ditzakeenak eta, azkenik, uztargarritasuna, Inguma datu basearekin zein sareko beste gune batzuekin bateragarria dela.

Hilabetez frogak egiten aritu ondoren, martxan dago webgunea eta, dagoeneko, 200 dokumentu baino gehiago eskaintzen ditu UEUK www.buruxkak.org web orrian. Hala ere, liburutegia etengabe elikatzen joango direla iragarri zuten atzoko agerraldian. Horretarako ondare nahikoa dauka erakundeak, izan ere, unibertsitateko hezkuntzarako 360 liburu argitaratu ditu 1978. urteaz geroztik. Erriondok esan zuenez, EHUrekin batera, UEU da esparru honetan ekarpen handiena egiten duen erakundea. Hezkuntzan aritzen direnek, ikasmaterialak zein garrantzitsuak diren badakitela ohartarazi zuen, ongi diseinatutako hezkuntza planaren kate begiak direlako. Horren harira, euskarazko ikasliburuak erabiltzen dituzten ikasketak gutxiengoa direla deitoratu zuen.

ERABILGARRITASUNA. Buruxkak liburutegiak biltzen dituen dokumentu guztiak Adobe enpresaren PDF formatuan eskaintzen dituzte. Erabiltzaileek artxiboak kontsultatu, bere ordenagailura jaitsi eta inprimatu ahal izango ditu. Horrez gain, UEUren argitalpenei buruzko berriak zabalduko dituzte webgunean.

Ikasliburuekin batera, bestelako dokumentuekin hornitu dute liburutegi digitala. Guztira, bost motako testuak eskaintzen ditu Buruxkak-ek:

Dendetan aurki ezin daitezkeen UEUren 69 liburu, UEUk salgai dituen 55 libururen atal bana eta aurkibideak, Uztaro aldizkariko zenbaki osoak, azken urtekoak izan ezik, Kondaira.com historia aldizkari elektronikoaren artikuluak eta, azkenik, doktore tesi batzuk.

Dokumentuak

UEUren liburuak ez ezik, askotariko euskarazko dokumentuak eskaintzen ditu Buruxkak Liburutegi Digitalak PDF formatuan, hala nola Uztaro aldizkariko aleak edota doktore tesiak.

Salgai ez dauden liburuak. Bost urte baino gehiago dituzten UEUren 69 liburu osorik. Norberaren ordenagailura jaitsi eta inprimatu daitezke. Katalogoko liburuak. Gaur egun salgai dauden UEUren 55 liburuen atal bana eta aurkibidea.

‘Uztaro’. Aldizkari honen zenbaki guztiak, 60, eskaintzen ditu webguneak, azken urtekoak izan ezik.

‘Kondaira.com’. Historiari buruzko aldizkari elektronikoan argitaratutako 20 artikulu.

Doktore tesiak. Digitalizatutako 9 doktore tesi daude oraingoz.